

Euskadiko Filmatagia profesionalizaziorantz

(The professionalisation of the Basque Film Library)

Ibarbia, Martín
Euskal Filmatagia
Ayda. Sancho el Sabio, 15 Atzea
20010 Donostia

Euskadiko Filmatagia profesionalizatzen ari da. Oraindik orain, Eusko Jurlaritzaren, Donostiako Udalaren eta Euskadiko Filmatagiaren artean sinaturiko hitzarmenek egoitza berri bat sortzea ahalbidetuko dute, Donostiako Gas Fabrikaren antzinako pabiloietan. Bestalde, hitzarmen horiek aurreko Elkarte erakunde juridiko berria –Euskadiko Filmatagi Nazionala Fundazioa izenekoak– bilakatzeko dakarte berekin, eta Filmatagiari premiazko egonkortasuna emango diote, finantza eta aurrekontuaren alorrean. EFaren aldi berriko lehentasunetako helburuen artean, irudien digitalizazioa da gehien nabarmentzen dena, beste formato batean biltzeak bizkortasuna emango baitio EFaren funtsak Interneten jartzea azken xedea duen zerbitzu bati.

Giltza-Hitzak: Profesionalizazioa. Egoitza Berria.

La Filmoteca Vasca se profesionaliza. Los recientes acuerdos entre Gobierno Vasco, Ayuntamiento de San Sebastián y Filmoteca Vasca, que van a permitir crear una nueva sede en los antiguos pabellones de la Fábrica de Gas de San Sebastián, llevan consigo la transformación de la primitiva Asociación en una nueva entidad jurídica que se denominará Fundación Filmoteca Nacional Vasca, que permitirá dotar a la Filmoteca de la estabilidad financiera y presupuestaria necesarias. Entre los objetivos de la FV, prioritarios para esta nueva etapa, el que más destaca es la iniciación de la digitalización de imágenes, cuyo almacenaje en nuevo formato permitirá dotar de agilidad a un servicio cuya meta final estriba en colocar los fondos de la FV en Internet.

Palabras Clave: Profesionalización. Nueva Sede.

La Cinémathèque Basque se professionnalise. Les récents accords entre Gouvernement Basque, Municipalité de Saint-Sébastien et Cinémathèque Basque, qui vont permettre de créer un nouveau siège dans les anciens pavillons de la Fabrique de Gaz de Saint-Sébastien, impliquent la transformation de l'Association primitive en un nouvel organisme juridique qui s'appellera Fundación Filmoteca Nacional Vasca (Fondation Cinémathèque Nationale Basque), qui permettra de doter la Cinémathèque de la stabilité financière et budgétaire nécessaire. Parmi les objectifs de la FV, prioritaires dans cette nouvelle étape, le plus important est l'initiation de la digitalisation d'images, dont le stockage dans un nouveau format permettra d'assouplir un service dont le but final repose sur le placement des fonds de la FV sur Internet.

Mots Clés: Professionnalisation. Nouveau Siège.

SARRERA

Askotan erabili ohi den paralelismoa da adina aitzakia hartuta egiten dena: halako instituzio, elkarte edo enpresak urtebete, 5, 15 edo 18 urte bete dituela esaten badugu, instantean aterako zaigu instituzio, elkarte edo enpresa horrek honez-kero ibiltzen ikasi duela, edo hitz egiten ikasi duela, edo bere kabuz erabakiak hartzen ikasi duela edota, denetan ohikoena, adin heldutasuna erdietsi duela. Azken hau da erabiliena ezezik argigarriena, adin heldutasunera iristeak nolabaiteko enpakea ematen baitio instituzio, elkarte, enpresa edo dena delakoari, pertsonari bezalaxe. Ez naiz hemen adinak besterik gabe heldutasuna ematen duen ala ez etabaidatzen hasiko, luze joko bailuke; ez da hau, ez, hitzaldi honen xedea; enpresa baten ibilbidea nolabait deskribatzeko balio duen neurrian darabilt aipatutako paralelismoa.

Bost urte joanak dira Euskadiko Filmatagia adin heldutasunera iritsi zenetik. Haurtzaro, nerabe-zaro eta gaztaroa igarok ditu jada eta honez-kero heldu xamartua dagoela esan dezakegu: datorren maiatzaren lehenean beteko ditu 24 urte. Eta, nire uste apalean, heldutasun hori erdietsi badugu ere, oraindik profesionalizazioaren eronka dugu betetzeko, ezin esan dezakegu modu erabat profesionalizatuan aritu garenik. Lan eskerga egin izan da batetik eta bestetik, ilusio izugarria jarri dugu bataren zein bestearen lorpenean, esfortzuak fruitu asko eman ditu, baina zenbait urrats oraindik emateke daude.

FILMATEGIAREN SORRERA ETA FILOSOFIA

Espainiako Estatuan haxe izan zen sortu zen lehen filmatagi autonomikoa, ondoren sortu ziren Katalunia, Valentzia, Andaluzia, Galizia, Gaztela-Leon, Zaragoza, Kanariar Uharteak eta Balear Uharteetakoak; aitzindari izateak, ordea, ez digu ematen halabeharrez profesionalizazioaren fruitua. Gutxinaka joan gara eta gutxinaka joango gara fruituak eskuratzen. Eta horretarako ezinbestean dago albora begiratu beharra, atzerian, beste filmategietan, nola lan egiten duten ikusi eta gurean hark zenbateraino balio dezakeen aztertu. Kanpokoa ezagutu eta bertakoa, urteek ematen duten eskarmentuarekin, hobetu. Eta horretan gabiltza, egitasmo kilikagaria esku artean dugula. Baina utz dezadan hori gerorako.

Euskadiko Filmatagia zenbait ikusentzunezko material bilduak zeuzkan Pello Aldazabalek sortu zuen 1978an. Pertsona orok ikusentzunezko dokumentuak ezagutzeko duen eskubidea bermatu nahi zuen Pellok eta dokumentu historiko-dokumentalak nahiz fikziozko lanak jarri zituen interesa zuen edonoren esku. Lehen pelikula metro haiek izan ziren Euskadiko Filmategiaren oinarria. Euskal gizartearen nortasuna eta kultur orimena berreskuratu eta gordetzea izan zuen xede filmategiak hasiera-hasieratik eta helburu horri eusten dio egun ere. Ikusentzunezko memoria historikoa biltzen dute bere baitan filmategiko biltegiek, kasu askotan benetako altxorak direnak.

35 milimetrotan filmatuak zeuden 600 metro pelikula izan ziren filmategiaren lehen altxorra. Metro horiek biderkatuz joan dira 23 urte eta erdi hauetan zehar eta gaur egun 4 milioi metro baino gehiago dauzkagu zinematografia eta bideo lanetan, formato guztietan: 8 milimetro, Super 8 milimetro, 16, 35 eta 70 milimetro zineman, eta Beta, VHS, „-Matic, 1C” eta Betacam, bideoari dagokionez. 1912az geroztik gure herrian filmatutako lanak aurki daitezke bertan, baina baita gure herriari buruz kanpoan egin direnak ere; guztira 6.000 lan baino gehiago. Eta ez hori bakarrik, idatzizko dokumentazioari ere ez diogu muzin egin: guztira 4.000 liburu eta 18.000 aldizkari espezializatu topa daitezke Euskadiko Filmategiaren egoitzan, 1901az geroztik argitaratu izan direnak. Argitalpen lanari ere eskaini nahi izan dio filmategiak bere lanaren arlo bat. Halaxe, Pedro Olea, Imanol Uribe, Javier Agirresarobe, Elias Kerejeta, Eloy de la Iglesia eta beste hainbat zinemagileri buruzko lan monografikoak, euskal zinemari buruzko ikerlanak eta beste hainbat zinemari buruzko liburu jarri ditugu merkatuan.

Filmategiaren sorrerako adierazpenean argi eta garbi zehazten zen entitate honen funtzioa, eta hura-xe izan dugu ardatz ibilbide honetan zehar. Halaxe zioen adierazpen hark: *“Zinemaren mundua eta bereziki euskal zinema aztertzeke interesgarriak izan daitezkeen filmak edo ikusentzunezkoak ikertzea, berreskuratzea, artxibategian gordetzea eta interesa duenari horiek erakustea da filmategiaren zeregina, baita historia eta kulturaren ikuspegitik interesgarri gerta daitekeen dokumentazio zinematografikoa eta material teknikoa bildu eta zaintzea ere”*.

ZINEMATOGRAFOAREN HASTAPENAK ETA FILMATEGIEN SORRERA

Betebehar horretan jardun du filmategiak urteotan, hasieratik uste izan baitugu ikusentzunezko lanak kontserbatzea ere nahitaezkoa dela bizirik iraun nahi duen kultura batentzat. Idatzizko lanen kontserbazioa ez da sekula zalantzan jarri, beti pentsatu izan da hura gorde eta mantentzea derrigorrezko eginbeharra zela eta sarri erakundeek beraiek hartu izan dute ardura hori bere gain. Zinematografoak, ordea, aurrez fotografia estatikoak bezalaxe, ez zuen dokumentu maila bereganatu, sortu eta urte batzuk geroagora arte. Aparailu entretenigarri edota bitxikeri zientifikotzat jo zen hasierako urteetan, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasiera hartan, eta urte batzuk igaro behar izan zuten dokumentu edo arte maila eskura zezan, halako berrikuntzekin gertatu ohi denez. Gaur, zorionez, idatzizko obrekin gertatzen den moduan, ikusentzunezko lanak kontserbatzea behar bat dela argi dugu denok.

Baina, gainera, gizarte mailan berrikuntza honek zuen ospe urriari, beste arazo bat gehitzen zitzaion zinematografoaren lehen urte haietan, zeluloidea erraz suntsi zitekeen euskarria zela, alegia. Zenbait kasutan orjinala baino ez zen existitzen, ez zegoen multikopiarik, eta lan asko eta asko, hainbat manipulazioaren ondoren, txikiturik geratu zen,

eta beste asko zokoraturik eta ahazturik. 20ko hamarkadaren bukaera aldera, soinua heldu zen zinemara, eta honek, aurrerakuntza ederra izanagatik, beste hondamen bat eragin zuen: enpresariak film mutiak kontratatzeari utzi zioten eta honen ondorioz, milioika pelikula metro suntsitu ziren, hainbat eta hainbat film dokumental eta fikzio lan desagertarazi.

Eta ez hori bakarrik, handik urte gutxi batzutara, 50eko hamarkadaren hasieran, zinema laneak beste zorigaitz bat jasan behar izan zuten. Ordurarteko pelikulen euskarriak, hau da, zelulosa nitratoak erretzeko zuen erraztasunaz jabeturik, berau debekatzea erabaki zuten, eta euskarri hura erabat erregaitza zen elementu berri batek ordezkatu zuen: zelulosa azetatoak. Antzinako kopia asko erre egin zituzten eta orraziak fabrikatzeko erabili. Garaiko biztanleen ilajeak orrazteko artelanak edo gutxienez ikusentzunezko lan interesgarriak erabili zirela esaten badut, barre egingo duzue, baina ez dut uste hori esatea astakeria denik.

Izan ere, zinema lanez ari garenean beti eduki behar da kontuan euskarri kimiko batez ari garela, behar dituen baldintzetan kontserbatzen ez bada berehala izorra daitekeen euskarri batez, alegia. Pelikulak hotzbero eta hezetasun maila jakin batean mantentut behar dira eta ez bada hala egiten, kaltetuak gerta daitezke.

Behin arestian aipatu ditudan arazo hauez guztiez jabetzeaz, laister sortuko dira zinematekak. Hauen bultzatzaileak kontziente dira ikusentzunezko dokumentuek, memoria kolektiboaren isla diren neurrian, duten balioaz, eta hauen berreskurapen eta kontserbazioan murgilduko dira buru-belarri. Zinemateka hauek izango dira geroago sortzen hasiko diren filategien aurrekariak.

EUSKADIKO FILMATEGIAREN ALTXORRAK

Berriz ere gureraz etorri, argi eta garbi esan behar da Euskadiko Filategiarentzat dokumentu oro dela kontserbagarri, bere kalitatea, jatorria, orientazio estetiko nahiz soziala dena delakoa izanda ere. Memoria kolektiboaren berreskurapenak ez du inongo oztopo edo mugarik zertan izan, eta jatorri publiko nahiz komertziala duten filmak, izenburu edo autore ezagunen filmak, jasotzen ditugun bezala, jaso izan ditugu lan anonimoak, gai erabat pribatu edota familiarrekoak jorratzen dituztenak.

Halaxe, filategiaren artxibategian zinematoografoak Euskal Herrian eman zituen lehen urratsak topatu ahal izatea benetako ezustea izan zen zinemazaleentzat. 1917an Jose Luis de Toghoresek filmatutako “El golfo” esaterako dokumentu bat da, garaiko Bilbo eta Donostia agertzen baititu, edota gure herrian osorik ekoitzi zen lehen film luzea, 1924an Telesforo Gil del Espinarrak filmaturiko “Eduene, modistilla de Bilbao”. Zoritzarek ez dira guregana zenbait sekuentzia baino ailegatu, baina horiek soilik balio historiko izugarria dutela ezin uka. Edo Azcona anaiek, Victor eta Maurok, urte

horretan bertan sortutako “Jipi y Tilín”, publizitate zinemaren lan aitzindari moduan hartu izan dena. Ezin ahaztu, orobat, Azcona anai berberak lau urte geroago, 1928an, sortuko zuten “El mayorazgo de Basterretxe” ezaguna, euskal zinemagintzako bigarren film luzea eta zorionez oso-osorik kontserbatzen dena.

Euskal zinemaren lehen aro hari begira, dokumentuen artxibategia fikziozkoa baino are garrantzitsuagoa dela esan dezakegu, historiako une jakin batzuen testigantza ematen diguten altxorak direlako. Hor ikus ditzakegu, esaterako, 1923an “Eusko Ikasgaiak” izenburupean filmatu ziren dokumental antropologikoak, edo “Paulino Uzkuduni Donostian eginiko harrera”, 1926koa, edo 1928ko “Euskal Billerako zekorketa”, edo urte berean gertatutako “Keixeta eta Igartzaren arteko apostua Azpeitian”. “Zestoako bainuetxea” izeneko ere 1928 urte horretakoa da. Handik lau urtetara, 1932an, Bilbon burutuko zen lehen Aberri Eguna ere irudietan jasota dago, baita 1934an Donostian alkate abertzaleak atxilotu zituztenekoa ere, edo Niceto Alcalá Zamorak urte horretan bertan Oñatira eginiko bisita. Nemesio Sobrevillak “Gemika” izeneko lanean bildu zituen gerra zibilari buruzko testigantza izugarriak ere altxor ordainezin bat direlakoan dago. Hainbeste dira...

Dokumentu historiko hauek berreskuratzeko sekulako esfortzua egin du Euskadiko Filategiak, irudi horiek zituzten pertsonak, zinemazale amateurak asko, esku artean zeuzkaten altxorez konzientziaz; eta haien lanak, kontserbazio egoki bat izan dezaten, gure lokaletara ekartzen, gero interesa agertzen duen ororen eskura egon daitezken. Zinemazale amateur hauen artean bi aipatzearren, Antonio Sarasua eibartarra eta Manuel Clausen bilbotarra aipatuko nituzke. Lehenak bere jaioterriko makina bat ekitaldi zeuzkan filmatuak, 16 milimetrotan, eta horien artean Jose Antonio Agirre lehendakariaren hilobiratzearenak, beste inork grabatu ez zituenak. Bilbotarrak berriz, 1920 eta 1955 urte bitarteko Bilboko hainbat ekitaldi utzi zituen filmatuak eta filategiak bere artxibategian dauzka gordeak.

Lehen garai hartako fikziozko lanen zein ikusentzunezko dokumentu historikoen zerrenda osatzera koan, uste dut garrantzitsuenetako batzuk aipatu ditudala, baina ez nuke azken bat aipatu gabe utzi nahi. Euskal zinemagintzaren beste altxor bat da, Euskal Herriaz egin den lehen soinudun film luzea; “Au pays des basques” du izenburu eta Maurice Champreux da beronen egilea. Film hau berreskuratu eta berzizatzea sekulako ohorea izan da filategiarentzat.

EUSKADIKO FILMATEGIAREN BALIABIDEAK

Euskadiko Filategian hauek guztiak eta handik aurrera sortu zirenak ikus daitezke horretarako propio egokitutako aretoetan; ez dira, beraz, ahanzturaren amildegi sakonera erori eta edonork, interesa balu, han dauzka ikusgarri eta aztergarri. Filategiko beste areto batean, gela teknikoan, lan

hauen guztien errepasoa egiten da erregulariki, pelikulen egoera aztertzen da eta behar diren moldaketak, konponketak edo garbiketak egiten dira. Hori da gure lana, eta gustura egiten dugu, argi baitagu gure historiaren pasarte asko hor daudela gordeak. Eta aipatutako urte horietan guztietan zinema munduko teknologiak izan duen bilakaera ikusteko ere, proiektore zaharrak, eragingailu bidezko kamerak, zinematografoaren aurreko aparailuak, gisa guztietako fokoak... jasotzen joan gara urteotan.

EUSKADIKO FILMATEGIAREN EGUNGO EGOERA: EZ GARA ERABAT PROFESIONALAK

Arestian esandakoak, ordea, ez du beste errealitate bat estali behar. Harro gaude egindako lan guztiaz, harro gaude berreskuratu ditugun film eta dokumentu guztiez, harro bildu ditugun aldizkari, argazki eta liburu guztiez, harro gaude baita ere kaleratu ditugun liburu guztiez, harro gaude filmategiak egin izan dituen emanaldi publiko guztiez, edo Donostiako Zinemaldiari eskaini izan dion laguntza guztiaz, baita ere antolatu izan dituen hainbat gairi buruzko biltzarrez, baina horrek ez du esan nahi egon gintezkeen egoerarik onenean gaudenik, ezta gutxiagorik ere. Harro bai, baina oinak lurrean iltzatuta.

Zer esan nahi dut honekin guztiarekin? Berriz ere hitzaldi hasieran erabilitako paralelismoari helduz, adin heldutasunera duela bost urte eta erdi iritsi amen, ez dugula artean profesionalki lan egiterik lortu. Lehen ere esana dut adinak ez duela askotan heldutasunarekin zer ikusirik, eta garbi dago askok askoz ere lehenago erdiesten dutela maila hori; eta beste batzuk ez dutela sekula iristen. Gu adin heldutasunera iritsiak gara, baina kontua da Euskadiko Filmategian guk nahi izango genukeena baino modu amateurragoan lan egin behar izan dugula, adin heldutasunera iritsi bitartean eta baita ondoren ere. 18 urteak beteak ditugu, baita 23 ere, adin heldutasunera iritsi gara, baita pasa ere, baina ez gara oraindik erabat profesionalak.

Jakina da Euskadiko Filmategia dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde bat dela sortzetik, ez luke halako eginkizun batek zentzurik izango proiektio publikorik izan ezean, eta beraz instituzioetatik datorkigun diru-laguntzei esker funtzionatu izan dugu beti. Baina zein laguntza? Hor dago koska. Dagoeneko ia 20 minutu daramatzat Euskadiko Filmategiaren lorpen eta lanen berri ematen, eta benetan harro kontatu ditut urte hauetako ibilbidearen nondik norakoak, baina eskura izan ditugun baliabideak hain izan dira urriak eta eskasak... ezin esan dezaket, futbol hizkera erabiliz, partida hau baldintzarik onenetan jokatu dugunik.

Ez zaizkigu behar izan diren baliabideak jarri, eskale rola jokatu izan dugu beti, gure lanak zuen balioa behin eta berriz mahaigaineratu eta justifikatu beharrez, eta halaxe ibili gara, bi-hiru langilerekin... eskerrak zeuden bi-hiru langile hauek beren lana maitatu izan duten... Erakundeak ez dira jabe-

tu filmategia erakunde nazional bat dela, gure memoria historikoa berreskuratzeko ezinbestekoa dela. Finantziatorik gabe ezin da erakunde nazional bat mantendu, hori argi da; frustrazio hori gudan oso errotua zegoen, aitortu behar dut. Frustrazioa nekearekin tartekatzen zen, gainera: nekata geunden eskale rol hori betetzeaz.

EUSKADIKO FILMATEGIAREN ETORKIZUNA: ERAKUNDEEKIN AKORDIOA

Halaxe, duela bi urte Euskadiko Filmategiaren lehendakartzarako deitu nindutenean, garbi esan nuen epe bat markatu beharra zegoela egoera hau iraultzeko, egoera amateur honetatik behingoz irten eta profesionalizazioaren bidean barneratzeko. Ultimatum moduko bat eman genuen: bi urteren buruan gauzak aldatzen ez baziren, bai nik eta bai beste zenbait bazkidek dimititu egingo genuela, alegia. Profesionalizazioaren helburu hori tinko eutsiz, Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten hasi ginen, eta garbi azaldu genizkien gure kexak. Haiek berehala ulertu zuten ordura arteko egoerak ezin zuela bere horretan segi, eta hura aldatu beharra zegoela. Adibide bi jartzearen, esango dizuet, esaterako, Kataluniako filmategian 60 pertsona inguruk egiten duela lan, eta Andaluziakoan 20 inguruk. Nola liteke Euskadiko Filmategiak bi-hiru pertsonarekin funtzionatzea? Filmategi hauek askotan harriduraz galdetu izan digute: baina nola egiten duzue hainbeste lan, nolatan hainbeste liburu argitaratu... bi-hiru pertsona bakarrik izanda? Egia esan, harro egotekoa da; harro bai, baina lehen nioen moduan, oinak lurrean ditugula eta dauzkagun hutsunez jabetuta.

Ez da soilik langile urritasuna, egoitza ere honezkero txikitxo geratu da eta hainbat eta hainbat gauza egiteko toki faltan gabiltza. Arestian esan dudana: alegia, modu amateur batean ari garela lanean.

Eusko Jaurlaritza behingoz konturatu da Euskadiko Filmategia erakunde nazional bat dela, eta existituko ez balitz sortu egin beharko luketela. Euskal Herriaren memoria historikoa islatzeko ezinbesteko erakundea dela jabetu dira eta pozik gaude behingoz ohartu direlako.

Euroaren ezarpena begi-bistan dugula, pezetek hitz egitea antzinako iruditu arren, lehenik egungo moneta honetan emango dizuet kopurua, Eusko Jaurlaritzak datozen hiru urteetan emango digun diru-laguntzaren kopurua: 500 milioi pezeta. Hilabete barru 500 milioi pezeta horiek 3 milioi pasatxo euro izango dira. Kontua da, 500 milioi pezeta hauekin, buruan ditugun hainbat proiektu jarri ahal izango ditugula abian datozen hiru urteotan, eta horrek berebiziko garrantzia du.

Honekin batera, Donostiako Udalarekin harremanetan izan gara azken boladan eta jada akordio bat lortu dugu. Donostiko gas fabrika zaharrari begia jota genion aspalditik, udalarekin hitz egin genuen eta lurrazal horixe utziko digu; han izango

du Euskadiko Filmatagiak egoitza berria. 2.900 metro karratuko azaleran gela teknikoak, artxibategiak, proiektzio gelak, bulegoak... paratuko ditugu; ez dugu beraz, toki arazorik izango.

Filmatagiaren historian zehar hainbat egoitza izan ditugu, guztiak erakunde publikoek utzitakoak; hasieran erabat probisionalak ziren, geroago Victoria Eugenia Antzokiko 82 metro karratuko lokal batean bildu genituen pelikula eta material guztiak; hura berehala geratu zitzaigun txiki eta 1993an egungo egoitzara joan ginen, Antxo Jakituna Etorbidetako atzealdean dagoen 340 metro karratuko egoitza horretara. Hori ere aski txiki geratu da honezkero eta orain, dudarik gabe, benetako egoitza duin bat izango dugula esan dezakegu. Sinatzeak sinatuak daude eta bi urte barru han izango garela gaudela.

EUSKADIKO FILMATAGIAREN ETORKIZUNA: EGITASMO BERRIA

Donostiako Udalak eraiki eta utzitako egoitza, eta Eusko Jaurlaritzak hiru urtetan emango dizkigun 500 milioi pezetak, horra eman nahi dugun jauzi kualitatiboaren oinarria. Gobernuak berari dagokion rola beteko du, hots, Euskadiko Filmatagia babestea eta indartzea, baina horrek ez du esan nahi filmatagia funtzionarizatuko dugunik. Behar diren langileak hartuko ditugu eta beharrezko diren proiektuak jarriko ditugu martxan, lehen nioen moduan. Zeintzuk dira baina proiektu horiek? Zein da hitzaldiaren hasieran aipatu dudana egitasmo kilikagari hori?

Bada, egitasmo erakargarri horrek bi adar dauka. Bata, filmatagiaren barne egiturari dagokiona, eta bestea kanpora begira planteatu dena. Biak uztarturik datoz eta bata ezin uler daiteke bestea gabe. Lehen aipatu dut zinematografoak zenbateko berrikuntzak izan dituen bere historian zehar; teknologiaren garapenak zenbateraino aldatu dituen gauzak zinema mundu honetan. Bada, garapen etengabe hori jarraituz, pelikularen kontzeptu fisiko-kimiko soiletik haratago doan egitasmoa da esku artean duguna: filmatagian dauzkagun pelikula, ikusentzunezko dokumental eta gainerakoak digitalizatu, indexatu eta Internet bidez hedatzea da, labor-labor esanda, proiektuaren xedea. Grafikoki esatearen, pelikula normal batek dituen bost rolloak disko gogor batean sartuko ditugu eta horiek Internet bidez jarriko ditugu jendearen eskura. Horregatik nioen barne zein kanpo arloa uztartzen dituela, gure funtzionamendurako zein kanpotik interesa dutenentzako izango delako baliagarria.

Baliagarria izango da, jada ez ditugulako dokumentu orijinalak ikutu behar izango, dokumentu horiek guztiak disko gogor batean egongo direlako almagaznatuak eta edozein kontsulta egiteko disko gogor horretara jotzea nahikoa izango delako. Disko gogor horretan filmak konprimatuak egongo dira, orijinala baino kalitate urriagoan noski, eta fitxa bat izango dute, non dokumentuaren inguruko datu teknikoak, egileen inguruko informazioa eta

lanaren inguruan izan diren kritikak, elkarrizketak edo dena delakoak bilduko diren.

Hasiera batean zerbitzu hori guztia intranet moduan jarriko dugu, hots, filmatagiko ordenadoreetan soilik kontsultatu ahal izango dira artxibategian dauden lan guztiak, baina etorkizunean zerbitzu hori berori interneten jarriko dugu, denen eskura egon dadin. Kontuan hartu behar da zeintzuk izan diren historikoki gure artxibategia kontsultatu dutenak edota kontsultatzeaz gain, hortik hainbat irudi hartu dituztenak. Zerrenda horretan zinema edo telebista munduko profesionalak, unibertsitateetako ikasle zein irakasleak, historiagileak, antropologoak... topa ditzakegu. Ekoiztetxeak edo Euskal Telebistak berak esaterako, egin izan dituzten dokumental historikoe-tarako gugana jo izan dute dokumentazio bila, baita historialegileek ere, beren azterketetan sakontzeko... gaur egun pasa den mendeko historia ezin baita irudia kontuan hartu gabe egin, hori argi da. Horiek etori izan dira filmatagira, baina bestelako jende interesatua ere bai.

Azken hauei eta beste guztiei ate berri bat ireki-ko zaie, internet bidez gure artxibategi guztia kontsultatzeko aukera izango dutenean. Profesionalak errazago egingo dute euren lana eta beste guztien-tzat ere eskuragarriago egongo da gure artxibategia. Jo dezagun Sidneyn ba dela euskal zinemagintzan interesa duen inor; bada, honaino etorri beharrean internet bidez hainbat eta hainbat lan kontsultatu ahal izango ditu handik. Gure artxibategiko filmak edo dokumentuak kontsultatu nahi dituen orok bilatzaile bat izango du bere eskura eta izen edo hitz bat jarrita, horrekin zerikusia duten artxibo guztiak azalduko zaizkio... alegia, euskal zinemagintza guztia interneten egongo dela kontsultagarri. Hau martxan jarri ahal izatea jauzi kualitatibo bat ematea dela uste dugu, ez bairik gabe.

Ez nuke termino teknikoan zurrunbiloan murgil-du nahi, baina datu gutxi batzuk ematearen, esan-go dizuet dokumentu guztien indexazio eta digitalizazioa egingo dugula; hasiera batean 500 ordu digitalizatu eta indexatuko ditugula; material digitalizatuen datu baseetan edukiak gordetzeko, kontsultak egiteko eta sartzeko aukera emango duen ekipo teknikoa erosiko dugula; eta prozesu hau guztia martxan jartzeko azpiegitura eta pertsonak izango ditugula. Hortik aurrerakoak prozesua-ren berezko inertiak markatuko dizkigu.

AMAIERA

Beraz, eta hasi dudana moduan amaitzeko, jada profesionalizaziorantz goazela esan dezakegu, benetako heldutasunerantzko bidean gaudela, eta hori berri pozgarria da zinez. Euskadiko Filmatagiak fundazio egitura hartuko du eta bi urte barru egoitza berria izango gara. Han gure lan guztiak egin ahal izango ditugu, hau da: filmatagira iritsi daitezkeen dokumentu berriak jaso, oraindik ezagunak ez diren zintak handik eta hemendik topatu, hauek guztiak berriztatu eta ikusteko prest jarri, egun daukagun artxibategi zabal hori zaindu, interesgarri iru-

Ibarbia, Martín

ditzen zaizkigun liburuak argitaratu, eta arestian aipatu dudan digitalizazio prozesu hori mantendu eta indartu. Hortxe eginbeharrak, guk maitasun osoz bete nahi ditugunak. Badirudi, heldutasunera

duela bost urte eta erdi iritsi ondoren, pixkanaka profesionalizaziorantz goazela. Ez da gutxi.

Mila esker